



Lenengo bertsolari eguna

Nola sortu zan



«ITZOL» ospatsuak, gai oni buruz, bere atzeneko itzaldian onela zesana: «Bertsolariak izandu dira gure edestia gorde digutenak; gure efiaren poz ta atsekabeak, abestuz, eunkiz-eunki guregana iritxi-azi dituztenak, gure adimen argiko bertsolariak.»

Alaxen da. Ta jai onen eratzailearen naia, befiz ere, gerogo, orobat gertatzea. Baiñan aspaldi xamar ontan, efiaren gogo-naiak utzirik, or zebiltzan bertsolariak utskeriko gaiak abesten, efiaren pafegafi. Efi-ableslarj auk, bide zuzenera ekartzeko asmoz sortu zan jai au.

Ludi onetan, utskeri bitartez, gafantzi aundiko gauza asko sortu oi dira ta bertsolari egun au, ain aundiki ospatu ba-degu, utskeri oietako bati zor zaio.

Lendik ba-zuan «Euskaltzaleak» bazkunak egun ori eratzeke asmoa; baiña, gaur, gertaera onek eragozten ziola; biar, beste batek gafantzi geiago zeukala; ufengoan politika gaia nagusi, eta ofela, batean ta bestean gure bertsolari eguna atzera.

Baiña egun batez, Donostia'n Eusko Gaztedia'k daukan areto apaiñean, ustekabeko gertaera bat sortu zan. Bertsoen indafa argi ikusi zan une aretan eta, ordutik, bazkun onek ere bertsolarien alde zerbait egiteko asmo sendoa artu zuan. «Euskaltzalearen» asmoa lendik yakiñik, ona nola biak batasunez eratu zuten yai-aldi au.

Eguna autatzea etzan ain efez; baiña Donosti efi euskaldundu nairik, beren yayari begira, yatorizko euskel kutsu duan gauzik egiten etzala-ta, Done Sebastian egunean, danbor soñu artean, egitea erabaki zan.

«Argia» asteroko yatorak zionez, egundo ez omen da ofelako euskel yai mamikorik izan Donostian.

Baiña gure gaurko eginkizuna ez da egun onek sortu dituan zeresanak agertzea, eguna nola ospatu zan edestea baizik. Gai oni elduko diogu, ba, al degun zeartasunez.

Poxpolin-aretoan

Goizeko amafak ziran eta Poxpolin aretora etengabeko yendetza ziyoa. Garai artan bildu bear zuten bertsolariak; baiñan yai onetako eratzaileak etzion ordurako beste ifiori otsegin. Alaz ere gerorago lekurik izango etzan beldufez, goizik asko zetozen bertsozaleak. Amar terditan, bertsolari geienak epaikarien afean zeuden, eta Poxpolin-antzokia befiz, ostez gafiñezka,

Antzez-lekua ederki antolatua zegan. Erdian, sei epaikarientzat maia. Epaikari bakoitzak an zeuzkan saioetako bereziki irafitako ofiak. Ofi aietan, bertsolarien izen ta efiak eta bertso bakoitzari emen lezaioiken ainbestekoa agertzeko, alde batean ala zion :

BERTSO BAKOITZARI PUNTUAK EMATEKO ERA

Oso txafari	0
Txar-xamafari	5
On-xamafari	10
Onari	15
Oso onari	20

Epaikari bakoitzak, onela, efez eman zezakean bere iritzia eta guziak batasunez, erabakia zuzen.

Mai onen bi albotan, bertsolariantzako besaulki bigun, dotoreak. «Euskaltzaleak» en izenean yai onetako lendakari gendun Ariztimuño yau-nak yafiazituan. Gudu onetara beren izenak biali zituzten era berean yafi ere eta onela gerta ziran :

Ikusleen eskubito aldetik, lenengo efeskadan :

- Basafi - Zarautz.
- Zepai - Efezil.
- ✕ Txifita - Altza.
- Txapel - Azpeiti.
- ✕ Lujanbio - Altza.

Bigarren ereskadan :

Abafategi - Bizkaia.
Tellaetxipi - Eñenderi.
Nekezabal - Zarautz.
Sarasola - Antiguoa.
Mintegi - Ordizia.
Erauskin - Ordizia.

Entzuleen ezkerfeko lenengo ereskadan :

Kortatxo - Itziar.

Aldaia, asteasuafa eta Zailpuru oiartzuafa etziran azaldu te beren exerlekuak utzik gelditu ziran.

Alkain urnietara zetofen gerogo eta onen inguruan Lafalde ta Matxin lapurditafak.

Ezkerfeko bigarren ereskadan:

Zabaleta, Kepa — Eñenderi
Zabaleta, Yon — Eñenderi
Sorozabal — Aiete
Etxebefia — Aiete
Uriarte — Bermeo

Era onetan jafita zeudelarik esan zitzairen beren eginbeafa, baita azkeneko saiurako ezkontza egin ere. Zeifia zer lankintza ezartzen zitzaion begiratu gabe, aufetik idatzita zeuden eran, bakoitza bere aufekoakin jafi zan eta onela eskuratu ziran:

Basafi	Artzai	Abafategi	Arotz
Kortatxo	Nekazari	Etxebefia	Aizkolari
Zepai	Nagusi	Tellaetxipi	Pelotari
Alkain	Mofoi	Uriarte	Dantzari
Txifita	Ikazkin	Nekezabal	Afantzale
Zabaleta K	Efotari	Sarasola	Afai-saltzaile
Txapel	Indiano	Mintegi	Arakin
Zabaleta J	Maister	Erauskin	Basefitar
Lujanbio	Itzai	Matxin	Ardo-saltzaile
Sorozabal	Pefatzaile	Lafalde	Ardo-edale.

Epai-maia onela eratu zan:

«Euskaltzaleak» bazkunaren izenean, Ariztimuño jauna. Eusko Gazte-dia'ren izenan, idazki trakets onen egilea ta Olano, Alzaga, Lekuona ta Olaizola jaun argiak.

Bertsolariei atzeneko irakaspenak eman ondoren, an zabaldu zan antzezlekuko zapia. Egia esan, egundo Poxpolin aretoak etzuan ainbeste lagun bere bafuan ikusi. Eta alaz ere, oraindik, estufa ta bultzaka atean geiago ta geiago.

Baifia goazen indar-neurketaren befi ematera.

Ariztimuño jaunak, itz labur mamitsuetan, jai ura zer zan eta zer izatea nai zukean argi azaldu zuan. Bestela luze juango litzakela-ta txalorik egin gabe ixilik egoteko, afen ta afen entzuleei eska zien.

Gudaketa asi zanean, ainbeste eunka lagun amasari eutsiz, beren poza ezin gorderik azaltzen ziran.

Lenengo saioa

Antxiñako erara, epai-maiekoak bertsotan eman zion asiera. Aspal-dietan Zafirain zanak, Txapilo izenordez ezagutzen zan donostiar efikoxeme jatofak erabiltzen zuan doifia berakin.

Ona bertsoa.

Ara bertsolarien
gudua eratu,
onekin gure izkuntza
nairikan goratu.
Bakoitzak nai duena
lezake kantatu;
doifun azke zerate
gaia aukeratu;
baifian beti bertsotan
zuek gogoratu
euskaldun zeratela
ta ongi mintzatu.

Onekin asi zan lenengo saioa. Bertsoak dionez, doifia ta gaia aske zituztela. Eta Basafi'k bereala onela jafaitu zion:

Uso zuri bat inguratu zait
goizean egun argitzez,
alaitasuna artzek sortu dit,
jaun maiteak, bere itzez;
eta ni orain zuen aufean
nazute pozaren pozez.
Lendabiziko, entzule onak:
Agur danori biotzez!

Saio guzitako bertsoak emen azaltzea, amai gabeko lana genduke. Etziran gaññera guziak artu eta bakoitzeko banaka batzuek besterik ez ditugu agertuko. Zepai zan bigařen eta ona onek orduan asmatutako bertsoa :

Mila urte ta bederatzi eun da
Ogei ta mabosteko urtean
olerkariak etofi gera
guztizko borondatean.
Funtzio eder bat zelebratzeko
Donostia'ko parřean,
oitura onak galdu baiño len
ea mogitu gaitean!

Txapel zegoan irugařen bertsolari eta onek gai oni buruz botatako biak or dijozkizute:

Pena guziak aldein dirate,
alai dadukat bařena,
zer kantzatzea asko det baiño
au esan beat ařena :
Ainbeste anai eta ařeba
eldu gera alkařena;
au da gauza bat euskaldunaren
maitasunak dakařena.

Begiak argi biotza zabal
memoria daukat ilun,
nere moduan besterik iñor
ez det ikusten nik iñun.
Guztiak ondo izan gaitezen
efegutzen det gau ta egun
eusko anaiak eta ařebak
alkar maitatu dezagun.

Saio onen befi emateari uzteko, Basaři'k botatako bigařen bertsoa deritzaik egokien. Auxe dezute :

Bertsolariak eman diote
Txeko efiari gorantza,
«Mireio» batek edergalutan
yosia zuan Provenza.
Ene Yainkoa egin zaiguzu
guri bear dan laguntza,
al dan azkařen sendatu zagun
gaixo dan euskel izkuntza.

Bigařen saioa

Oraingo onetan, doñua epai-maiekoak bertso batean ematen zuana beařezkoa zuten. Doñu au guzientzat ezaguna autatu zan ; eřiak aoz-ao abesten duana, Pedro Mari Otaño'k sortutako « Limosnatxo bat » deritzaion bertsoakin erabiltzen dana. Gaia ere epaileak esandakoa besterik etzeukaten erabiltzerik. Baldintza auetara etziran guziak bear bezela lotu.



« Basaři » - Zarautz
Que obtuvo el primer premio en el
certamen



« Zepai » - Ezezil
Calificado en el tercer lugar del
certamen



Tres de los premiados en el certamen
Primer premio « Basaři », « Matxin », segundo y cuarto, « Alkain »

Tamalez, beartutako bidetik iges, asko ibili ziran. Baiña geiago luzatu gabe agertu dezagun maiekoak abestutako bertsoa. Berau da :

Bigafen bertso saioa orain
zoazte gogoz astera,
ni ari naizen doiñu berean
bearturik yafaitzera.
Nai ta nai ezik bear dezute
guziak gai auxe bera :
« Euskel izkuntza galtzen ari da
ta galtzen ba'da euskera,
Euskalefiko seme guziak
betiko galduak gera ».

Bereala Basafi'k eman zion asiera. Saio onetako bere iru bertsoak yasoak dauzkagu ta, irakurleen atsegiñerako izango diran ustetan, emen agertzea erabaki degu. Iru aukerak dira beraz :

Itxas ertzetik entzuten dira
ama euskeraren antsiak
ta bai dirala ilun tristeak,
ene ! bai negargafiak.
Nola kanpoan ala etxean
nunai ba-dauzka etsaiak,
au oldoztuta malko trinkotan
betetzen zaizkit begiak ;
bera iltzen ba-da ez du askorik
paltako Euskalefiak !

Entzun zaidazu, gizonezko oreak
entzun, emakumezkoa ;
ikur aundiak agertutzea
ez da izango naikoa.
Ara nolatan mintzatzen zaigun
gure Yauregi zintzoa :
« Euskalefia euskerik gabe
bai dala efi gaixoa,
maasti ofitsu edera baiña
mats alerik gabekoa ! »

Galtzen ba-degu gure mintzaira
galdua dago guzia,
esaidazute, anai afebok,
ez al da lotsagafia ?
Irakasleak bezela daukat
nik ere aitortu naia,
au esanikan yoan zitzaigun
Arana Goiri aundia :
« Il naiago det ikusi baiño
Abefiaren amaia ! »

Bigafen bertsolaria Zepai zegon eta onek gero go Txifita zirikatuz
gaia galdu-azi bazuan ere, lenengo bertsoa au bota zuan :

Nere bafengo sentimentua
nai nuke adierazi ;



Entrega por el Sr. Secretario de «Euskaltzaleak» a Basafi del premio «Udafegi», el día del homenaje en Zarautz

yakinduria gurekin degu
 ifiork ezin galerazi.
 Atzefitikan etofi eta
 euskaldunaren nagusi,
 geren gauzakin aginpiderik
 guk ez al degu merezi ?
 kanpotar danak bear luteke
 euskera ondo ikasi !

Txifita'k ere bertso edefik asko kantatu zuan antxe. Azkenean parantzeko irteerakin entzule askoren atsegifien. Ona saio onetako bere bat:

Larogei urte gaitiean ditut,
 nago anketako mifiez,
 Donosti'ra etofia naiz
 efen aundia egifiez.
 Bi bastoiekin txit lafi nabil
 pausorik eman ezifiez.
 Euskera ia aztu zait eta
 erderaritan yakin ez,
 maixu batekin eskolan laxter
 asi bear det latifiez.

Bertso onek algara edefak egin-azi zituan. Izan ere bukaeran buru-eskuakin Ariztimuño apaiza erakutsiaz, maixutzat bera aukeratua zeukala adierazten zuan.

Begi aurrean dauzkagu Txapel'en saio onetako beste bi bertso. Guzienak ezifiean bioaz auexek :

Nere denboran ez det izandu
 orain ainbeste deskantsu,
 gure abefi maitagafia
 daukagulako indartsu.
 Gure gustoa zer litzakean
 guk bezin ondo dakizu,
 zure befiak abestutzeko
 desiaturik naukazu,
 ofetarako laguntasuna,
 ama Euskadi ekatzu !

Nere biotza arkitutzen da
 alaitasunez betia
 ikusirikan emen guziak
 daukagun borondatia.
 Ofegatikan pentsatu det nik
 alabantzak ematia
 itzalditxo bat egin gabe gaur
 ez da komeni yoatia;
 beti goratzen saia gaitezen
 gure euskera maitia.

Bigarren ekifaldi onen befi ematea bukatu beaŕean gera eta Kortatxo'n bertso onekin egingo degu :

Zorionean juntatu gera
 anai danak alkaŕena,
 biar bezela ez gaudelako
 tristuraz daukat baŕena.
 Gu modu ontan bizi gera ta
 gauza bat dago txarŕena,
 anaitasuna ipiñi bear
 guk orain emen lenena,
 eta euskaldunak ondo izateko
 euskera bear aurrena !

Saio au amaitu zanean, txalotsa izugafi bat entzun zan aretoan. Ordurako entzuleak, antzezlekuko bazter guziak artuak zeuzkaten. Abeetatik mats-alearen iduri, buruak zintzilik. Ezin adierazi dezakegu ostea nola estutu zan.

Ufengo saiorako zalantza gogoŕa zegon. Nola izango zan ez baitzekien ifiork. Eta atsedeneko asti labur baten ondoren asi zan

Irugaŕen saioa

Aldi onetan, maiekoak bertsoen asiera bertsolari bakoitzari ematen zion. Doiñu artan yafaituaz, itz-erorkera edo rima berdiñekoa arki bear zuan bertsolariak. Eta guzia une berean, oldozteko astirik gabe, zer esango zitzaionen aztaŕenik etzuala. Korapiño auek guziak ederki askatu zituzten gure gizonak. Batzuek « poto » egiteko lafi xamar ibili ziran ; baiña etzan ifiortxo ere nabarmendu. Entzutekoa zan aien trebetasuna ! Ikustekoa zan aien urduritasun ta odolbizia ! Buru belafi maiekoen asierari zofotz eldurik, zakur gosetiaŕk ogi puska aidean artzen duan irudi edo, zaldi laixterkariaren asierako ezin-egonen antzo.

Saio oni buruz asko esan genezake ; baiño gure itzak baiño ango bertso zofotzak irakurtzea gogokoago izango zaizutela-ta, berak agertu bearko ditugu.

Beste saioetan bezela, oni ere, maiekoak eman zion asiera. Ara zer bertsókin :

Asi dezagun befiŕ
 bertsotan saioa,
 nik oiñak emanikan
 oryafaitzekoa.
 Auxen bai guk degula
 indarneurtzekoa ;
 entzun, ba, nere itzak
 aŕtera nioa.

Eta guziei banan-banan asierak eman zizkion. Berauek eta yafaitzeak emen agertzeko asmoa artu degu; baiñan ez guziak, batzuek baizik. Emen dioaz aúfean egokitu zaizkigunak :

BASARI

Lenengoa zu zera
bertsoa botatzen....
.....
Orekin poz audirik
etzait neri etortzen.
Asi bear bet orain
zerbait efegutzen,
ofela saiaturik
alkar ezagutzen.

ZEPAI

Bigafena zu zera
bota erantzuna....
.....
Orla agurtuko det
nere ezaguna.
Asko estimatzen det
orlako laguna
propio ortarako
da gaurko eguna.

TXIRITA

Yafaiozu zeofek
ofen esanari....
.....
Erespuesta emango iot
orain gizonari.
Apenas dagon bertan
eskas eta lafi ;
ez da ala moduan
jolasean ari.

TXAPEL

Nai dezuan gaiakin
jafaitu zaiozu....
.....
Nere erantzunakin
afitu beazu.
Nola alkar mintzatzen

ai geran ni ta zu,
urte askoan orla
zuk segitu zazu.

TELAETXIPI

Zer diozu gai ontan
esan zazu azkar....
.....
Euskara gaitzeakin
gaitz aundia dakar.
Saia gaitean danok
gogoz eta azkar,
ikasten saia ondo
naiz gazte ta naiz zar.

SARASOLA

Zeiñentzat izango da
gaurkoan saria...?
.....
Irabazten duanak
zeruan gloria.
Zuri erantzun eta
ara esan egia ;
oraindik ez da galdu
nere memoria.

ERAUSKIN

Orain azaldu zazu
zedofen gogoa....
.....
la jafita nago
tonto ta eroa.
Nik ez dakit zu zeran
emen toreroa ;
toriatzailetzako
au dek jeneroa !

ALKAIN

Noiztikan asi zera
bertsoak kantatzen...?
.....

Nere antzeko lagunakin
nintzanen juntatzen,
beti kantatuz nitzan
euskaraz mintzaten.
Eta emen oraintxe
asi naiz aspertzen.

MATXIN

Nolatan artu dezu
ofen erantzuna...?
.....
Laxter esango dizut
ori ere gizona.
Gose ta egafia
ez da gauza ona.
Nun dezu bazkaria
prestatu dezuna ?

ZABALETA K.

Urte osoan zertan
enpliatzen zera...?
.....
Jan eta edanean
konpontzen ba'gera.
Gaur ere ofetara
etofiak gera,
ia bazkaldutzeko
ba'degun aukera.

ETXEBERIA

Erantzun akiozu
nere izenean....
.....
Nik kantatuko dizut
zuk nai dezunean.
Bastante aspertuak
gaude gu lanean,
pozik asi gñezke
orain edanean.

URIARTE

Ekin zazu oraintxe

nere lagun zafara...
.....
Ofetako bai dala
orain urdu txafara.
Ba-dakizu aragiz
naizela malkafara,
kanturako amaitu
da nere indafara.

ZEPAI

Bertsolarien egun
zoragafi ontan....
.....
Gizonak ez du bear
beti befiketan ;
baraurikan gaude ta
eztafi neketan,
danak konporme gera
zufuteko ofetan.

TXIRITA

Ez dezazute esan
befitsuk gerala....
.....
Erespuesta emango
diot bereala.
Galanki zapaltzen det
anketako sala ;
baño jasotzen gaitu
nola-edo-ala.

TXAPEL

Ez nuan nik beñiere
orlakorik uste....
.....
Entzunlari maiteak
fijatu zaitzte.
Goizetik arkitzen naiz
gaur ni oso triste,
bazkaltzera juatea
obe degu laiste.

NEKEZABAL

Bertsoak botatzeko
 au da jende pila....

 Danak pozik uzteetan
 bear oso abila.
 Oraindik solteru naiz,
 gaiñera mutila
 lufak tapatutzeko
 a zer ezur pila.

KORTATXO

Ementxe naukazute
 zutik eta tente....

 Ni're jarko nitzake
 orain defepente.
 Siletan jafirikan
 ofenbeste jente,
 zu zutik egotetan
 aukera zaituzte.

SOROZABAL

Gauza bi esatera
 zuengana nator....

 Baldin ba-deizkiozu
 zuzen ala jator.
 Ez dakit zer modutan
 ari zeran zu or,
 nere eztafia dago,
 jauna, pranko legor.

TXIRITA

Zer dala-ta zabilta
 bertsoen lanetan...?

 Zartu xamar naiz eta
 bizi naiz penetan.
 Egiak aitortutzen
 dizkitzut benetan :
 oz dago arunka aundirik
 alderdi onetan.

SARASOLA

Au da lanbide zaila
 gaurko au nerea....

 Ondo neurtu lezake
 bakoitzak berea.
 Eskuturikan dago
 neretzat legea,
 sasoirikan onena
 joana da nerea.

KORTATXO

Oñelako jai-aldi
 eusko-usaidunak....

 Naio nituke beti
 orlako egunak.
 Neu bezelaxe emen
 danak euskaldunak
 ta pozez euskerari
 serbitzen diogunak.

ALKAIN

Miñikan eman gabe
 nik nai nuke esan....

 Begira daukagunak
 sinistatu dezan,
 udaran ta neguan
 alde guzietan
 toriadore txafa
 etzerade izan.

MATXIN

Au da buru austeko
 lana daukatena....

 Oñek ematen digu
 biotzean pena.
 Zu buru austetan da
 egafiak dena,
 nik nai nuke orain yoa
 zurekin bafena.

LARALDE

Emen azalduko det
 al detan guzia....

 Nik ere egin nai nuke

egiñal luzia.
 Gure izkuntza oni
 ongi laguntzia,
 aski da Yinkoari
 laguntza eskatzia.

Irugañen ekiñaldi au amaitu zanean, entzuleen poz ta zaletasuna agertze gaiko txalo soñua entzun zan. Ordua auñera zioalarik, entzule askok beren etxetara yoa bear ta irteteko asti motx bat eman zitzaieten. Alaz ere, bazkaria gerorako utzita amaika lagun gelditu ziran azken saioa entzuteko asmotan. Orduan asi zan

Laugañen saioa.

Ekiñaldi onetan bertsolariak binaka agertzen zitzaizkigun. Efiak geien ikusi dituan eran eta, batzuen iritziz, beren trebetasuna argien erakusten dutena. Asieran agertu degu bakoitzari ezafi zitzaion langintza; nor-norekin ezkon-azi zituzten ere bai. Alkar eztabaida edo yolasa zioan ba, saio onetan eta maiekoak asiera emateafen bertso au entzun-arazi zuan :

Bertsoetako saioa orain
 emendik degu befitzen,
 bakoitzak lendik ezafitako
 langintzak gogoz goratzen.
 Bertsolariak binaka dira

eztabaidetan azaltzen
 eta asieran esan bear du
 zer langintzan dan mintzatzen,
 gero, leiatuz, jafaitutzeko
 bata bestea menpetzen.

Bostna bertso abestu bear zituzten bikoitz bakoitzak. Eta saio onetan bere goi-argi, trebetasun ta zirikada zofotzak eñlerki agertu zituzten. Erakusbiderako ona Zepai'k nagusi bezela eta Alkain'ek mofoi langintzan egindako bertso bana:

ZEPAI=NAGUSI

Lenago gazte xamafa zifan
 pixkat ein dezu zartzera
 eta aditu izan detanez
 gizon motela etzera.
 Nik zuri lana agindu eta
 etzazu egin atzera,
 nagusi ona izango naiz ni
 ondo portatzen ba'zera ;
 lenguan baiño goizago etofi
 ufena gure etxera.

ALKAIN=MOFOI

Zure bostortzai etzaio juten
 aspaldi ontan erdoirik,
 debalde ere eznuke artuko
 asko moduzko pioirik.
 Zer janen paltan naukazu eta
 zutik or nabil doi-doirik,
 ta sukaldean ez da azaltzen
 len antzekoen urdairik ;
 zuk ez daukazu bilaturikan
 ni bezelako mofoirik.

Basafi'k eta Kortatxo'k alkar zirikatzeke egin zituztenetan, ementxe dauzkagu mai gainean eta auekin amaitu nai genduke bertso agertzea. Basafi artzai gendun eta Kortatxo nekazari; ez ditugu berak egindako bertso guziak agertuko; baiña ara emen batzuek :

BASAFI=ARTZAI

Neureak orain aitor nai ditut,
besteri zertan galdetu,
urte polita izan degu-ta
ez gera gaizki moldatu.
Artzai lanakin ondo nabil ni
ezin nezake ukatu;
mendi maldetan noiz-nai txistutan,
noiz-nai bertsoak kantatu.
Mundu onetan zein ote dago
orain ni bezin kontentu.

KORTATXO=NEKAZARI

Joan dan urtea urte ona zan,
arto gariak galanki
eta etsaien inbiriarik
nik ezin neike eduki.
Txistu egiñez, egoaldi onez,
artzai ere ederki;
alpefen martxa dago ortikan,
ori edozeiñek daki;
negu txarean mantendutzeke
saia beazu gogorki.

BASAFI=ARTZAI

Ai, Kortatxori erantzuteke
ez det nik oso berandu,
lendikan zintzo jota naiz eta
damurik ez det izandu.
Alpefen martxa ote daukadan
orek alaxe esan du;
inbrietan bizi zerala
gauzak ongi ezagun du,
zeuk ere zerbait ingo zenduke
komentzirik ba'zendu.

KORTATXO=NEKAZARI

Astelenean izaten det nik,
nere bizi kokkoñean,
ifioia ezin ibili ta ni
oso pauso azkañean.
Tabernetara joaten gera ta,
gero ilunabañean,
geren etxera etofi're bai
egundoko moskoñean;
orduan aitak ipintzen digu
atxurtxo bat bizkañean.

BASAFI=ARTZAI

Aguro asko esan dituzu
nola bat eta bestia
tabernarako nola daukazun
zeure jokera guztia;
aizu, len asko egitekotan
oso seiñale tristia,
gaitz izango da atxurafekin
zu lanean ikustia;
kolore oiek egiterako
etzaude gutxi kostia.

KORTATXO=NEKAZARI

Bizibide bat oraintxen goaz
geran etxean artzera,
nekazariak izanikan gu
gauz onik gutxi etxera.
Larunbatean tabernara ta
astelenean gerera,
nere moduan kanpo aldetik
ibiltzen baldin ba'zera
zure aitakin asaretuta
safitan gertako zera.

Ordubiak yoak ziran azken-saio au amaitu zanerako. Iru ordu osoetan egondu ziran ainbeste ta ainbeste lagun, lenengo bertsolari eguneko gora-bera guziak ikusirik, ango trebetasun buru-argiak in afituta.

Ostea Poxpolin aretorik irtererakoan, pozik zegoen eta ala adierazten zuan ezpairik gabe.

Guzia amaitu zanean, epaikariak bertan bildu ta asi zuten azterketarako lana. Bakoitzak bere iritzia eman ondoren, azkenik erabaki au agertu zuten :

Epai-Maiaren Iritzia

Epai-maiekoak beren iritzia agertzeke, kontuan eduki bear izan dituzte bertsolarien sorpena, irudipena, bertsoarako ezeztasuna, bertsoen neurketa, puntuak eta oifen berdintasuna.

Baita ere emandako gaiak erabili zituzten edo ez; eta bakoitzari emandako ogibidearen yabe egin zan edo ez.

Gauzak zeatz aztertu ondoren diogu :

1'go. Ao batez, iritzi berdiñekoak izanik epai-maiekoak txapeldun « Basafi » bertsolaria aukeratzen degula.

2'gn. Bigaen sarirako « Matxin »; irugañenerako « Zepai »; laugañenerako Alkain aukeratu ditugula. Oietzek puntuz-puntu leku oiek irabazi dituztela, beste batzuek ia berdintsuak badituzte ere.

3'gn Beste batzuek ere aukeratuak izango zirala, sari ugariagoak izan ba'lira, ba beste bertsolari yaiorik ba-zan gudu onetan-ta.

Epai-maiekoak : Ariztimuño'tar Yoseba (apaiza), Altzaga'tar Toribi. Olaizola'tar Yoseba, Lekuona'tar Imanol (apaiza), Zubimendi'tar Yoseba, Olano'tar Txomin.

Eusko Gaztedia'n.

Berandu zan bazkaria asterako. Iru ordu abesten yardun eta bertsolariak ainbeste aldiz beren zirikadakin yan-edanak eskatuafen, orduan ez bazitzaioten eman, Donosti'ko Eusko Gaztedia'ren areto apaifean ez zitzaioten ezer ukatu. Ba-zeukaten an eztafia zerekin busti. Eratzaileak guziei poz eman nairik, bazkari txarteletan au irafi-azi zuten :

Done Sebasten egunean 1935.

BERTSOLARI-BAZKARIA

« Euskaltzaleak » eta Eusko Gaztediak eratua

Asteko txorakerlak
Eusko Gaztedi aroza zilipurdika
Bertsolari erako legatza

« Euskaltzaleak » arkume eria, patata prejituakin
Euskadi'ko goxo ta prutxa

Ardorik onenak - Sagardorik bikaiñenak
Kafja, esteak eñetzekoa ta naiko kia ateratzekoa

• Ondoren : bota bertsuak !!

Amaika par egin-azi zuan alako euskera mordoiloak eta atzeneko deiarri bai bertsolariak azkar erantzun ere. Ba-zan antxe bertsoa ta alaitasuna!

Bazkalondoan, Ariztimuño jaunak, itzaldi eder baten ondoren, epai maieko iritzia agertu zuan eta an aitatutako bertsolariari sariak onela banatu zizkaten: Basafi'ri 100 pezta; Matxin'i 75; Zepai'ri 50 eta Alkain'i 25.

Bertsolari bakoitzak eskafak bertso edefetan eman zituzten eta berak txalo edefak yasoak ziran.

Ondoren « Euskaltzaleak » bazkuneko lendakari dan Monzon aldun-gazteak, itzaldi sakon mamitsu bat egin zuan eta egun onen eratzailerei eskafak emanaz amaitu zan sari-banatzea.

Ez ordea bertso ekiñaldia. Goian Eusko Etxea'k daukan aretoan, entzuki batzuen bitartez ederki entzuten zan bekoa ta goian ta bean, osterz beterik, bertsoa bazter guzitan.

Onela ospatu zan Donostia'n Lenengo Bertsolari Eguna ta itxuraz, ufengoak garantzai aundiagoakin ospatzeko zaletasuna gelditu da.

Ondorenak.

Usurbil'ko « Gabon » bazkunak, Udafege bertsolari zanaren izenean, txapeldun irtetzen zan bertsolariari sari bat eskeiñi zion. Eskeintz orri bertsolaria bizi zan eñan egitea eratu zan ta, ofela, Zarautz'en ufengogandean au zala-ta yai-aldi egoki bat gertatu zuten.

Goizeko amaiketean, « Lizardi » gure olerkari irakasle izena eman dioten antzoki edefean, bertsolari ekiñaldi bat egin zan. Basafi, Nekezabal, Zepai ta Alkain'ek ongi atsegindu zuten ango ostea.

Asieran Ariztimuño jaunak, Euskadi'ko bertsolariaren edestia agertuaz, oraingoan yo-bidea argi agertu zigun. Guzientzat izan zan naiko txalo.

Bazkaltzen adiskide pilo edefa batu gifian eta amaieran, beñero « Euskaltzaleak » bazkuneko izenean itzegiñaz, « Aitzol » argiak Udafege saria eskeiñi zion Basafi'ri. Bai onek bertso edefetan eskafak eman ere.

Zinkunegi jaunak, andik eta emendik zorionak emanaz etofitako-ufutidazki ugariak irakufi zituan.

An zegon « Orixe » ere eta txaloak beartuta, eskuartean dabilkien olerkien beñi eman zigun.

Ezin aztu Bařena jaunak irakufi zigun idazkia. Berau Enbeita'rena, gendun eta Basafi bere zuaitzeko kima beñia bezela agertzen zuan.

Egun edefa Zarautz'en igarotakoa. Bertako semeak beren olerkaria goraldtu nairik eratu zuten yaia guzien atsegiñeko izan zan.

Onekin amaitzen degu, irakurle, gai oni buruz egin ziran yaien beñi ematea. Beñiz ere urtebete bafu orlako edo aundigoko yaia ospatzeko-era izango al degu.

ZUBIMENDI'TAR YOSEBA

¡Por nuestra lengua nacional!

II Día del Teatro Vasco.—VI Día de la Poesía Vasca en Bedoña. Aretxabaleta.—El Congreso de escritores euskaldunes.—El Día de la Novela Vasca.—Publicación del poema «Euskaldunak».



EN los locales de la Sociedad de Estudios Vascos, reunióse la Junta directiva de la Sociedad «Euskaltzaleak», en su reunión reglamentaria, con el fin de esbozar el plan de propaganda euskaldun en el presente año de 1935. La sesión tuvo lugar el domingo, 17 de febrero.

Dió el secretario cuenta de los trabajos realizados por la Sociedad, para poder organizar una cátedra de euskera y literatura en la Normal de Maestros de Donostia, y la petición cursada al Ilmo. Sr. Obispo de la Diócesis, solicitando que los estudios literarios euskéricos tengan una gran amplitud, idéntica, por lo menos, a la de los demás idiomas que se cursan en ese centro escolástico.

II Día del Teatro Euskaldun

Designóse el domingo, 28 de abril, para que tenga lugar en esa fecha la celebración de la segunda jornada en favor del Teatro Vasco. Se celebrará en Donostia y sirviéndole de grandioso marco la iglesia de San Telmo, donde dará una conferencia sobre el teatro euskaldun, D. Antonio de Labayen, director de «Antzerti».

En un teatro de la capital gipuzkoana, uno de los mejores cuadros dramáticos euskaldunes, representará la obra premiada en el segundo concurso de obras teatrales, titulada «Gogo-Oñazeak», de la señorita Mujika'tar Tene.

El concurso de cuadros dramáticos sigue celebrándose con gran entusiasmo y asistencia de público en el Teatro de los Poxpoliñas. Han actuado hasta el día de hoy cinco cuadros artísticos y faltan otros seis, terminando este interesante certamen el domingo, 31 de marzo.

VI Día de la Poesía Vasca

Deseaba la Sociedad «Euskaltzaleak» celebrar con gran esplendor el VI Día de la Poesía Vasca en Bilbao, en honor de Sabino de Arana y Goiri, poeta. Pero, aconsejando las actuales circunstancias el aplazar este gran homenaje al poeta nacional, se ha decidido sustituirlo con el que se celebrará en la aldea gipuzkoana de Bedoña, en Aretxabaleta, en memoria del joven y malogrado vate «Loramendi», recientemente fallecido.

En el poético lugar, donde el jovencito «Loramendi» sintió su vocación religiosa y poética, levantará «Euskaltzaleak» un hermoso monumento a su memoria.